

PRODISCAT

DISLEXIA DETEKTATZEKO ETA DISLEXIAREKIN JARDUTEKO PROTOKOLOA HEZKUNTZA-ESPARRUA

Argitaratzailea:

Departament d'Ensenyament de
la Generalitat de Catalunya.

Egilea:

Col·legi de Logopedes de Catalunya – CLC

**LEHEN HEZKUNTZA
LEHEN ZIKLOA (1. eta 2.mailak)**

Lehen Hezkuntzan (lehen zikloko 1. eta 2. mailak) dislexiaren adierazleak detektatzeko behaketa-protokoloa

Ikaslearen izena Ikasturtea
 Jaiotze-data Balorazio-data.....

ETAPA	ITEMAK	Bai	Ez
L E H E N Z I K L O A (1. eta 2. mailak)	Aspektu orokorrak		
	1. Irakurtzeko eta idazteko zailtasunak dituzten familia-aurrekariak ditu		
	2. Errendimendu kognitiboaren eta akademikoaren artean aldea antzematen da		
	3. Ahalegina eta emaitzen artean aldea antzematen da		
	Aspektu espezifikoak		
	4. Hitz egiten duenean lexikoa erabiltzeko zailtasunak ditu		
	5. Kosta egiten zaio ideiak ahoz modu ordenatuan adieraztea		
	6. Hitz berriak sortzean, ez da oso trebea hitzen soinuak ordeztu, ezabatu edo konbinatzeko		
	7. Kosta egiten zaio grafemaren eta fonemaren arteko asoziazioa egitea		
	8. Letreiatzeko zailtasunak ditu		
	9. Irakurtzen duenean akats asko egiten ditu: omisioak, aldaketak, eransketak, inbertsioak (adierazle hau ebaluagarria izango da 2. mailan) ininbertsioak		
	10. Irakurtzen duenean hitzak asmatzen ditu (adierazle hau ebaluagarria izango da 2. mailan)		
	11. Bere irakurketa oso mantsoa eta behartua da		
	12. Kosta egiten zaio irakurtzen duena ulertzea (adierazle hau ebaluagarria izango da 2. mailan)		
	13. Uko egiten die irakurtzeari eta idazteari		
	14. Gehiegi nekatzen da irakurtzen duenean		
	15. Grafismoari dagokionez, zailtasunak ditu		
	16. Kopiatzen duenean akatsak egiten ditu		
	17. Idaztean ortografia naturaleko akats asko egiten ditu gela-taldearekin alderatuta		
	18. Kosta egiten zaio diktaketa bat jarraitzea, eta galdu egiten da		
	19. Kantitateak idaztean, zifrak inbertitu egiten ditu		
	20. Zenbakiak irakurtzen dituen zailtasunak ditu		
	21. Askotan nahasten da kalkuluak buruz egitean		
	22. Akatsak egiten ditu kalkulu idatzian		
	23. Espazioan orientatzeko zailtasunak ditu (asteko egunak, izen-zerrendak...)		
	24. Kostatzen zaio sekuentziak zerrendatzea (asteko egunak, izen-zerrendak...)		
	25. Arreta jartzeko gaitasun eskasa erakusten du		
	26. Despistatzen da eta gauzak erraz galtzen ditu		
27. Eskolako lanak egiten dituen segurtasun-eza adierazten du			
28. Ezegonkortasun emozionala azaltzen du			

Oharrak

EMAITZEN INTERPRETAZIOA

- Beltzez dauden itemetako baiezko erantzunak arrisku handiaren adierazle dira eta esku-hartzea eskatzen dute.
- Gainerako itemetako baiezko erantzunak (beltzez ez daudenak) sintomak areagotu ditzaketen zailtasunen adierazle dira eta esku-hartzeko estrategiak planifikatzerakoan kontuan hartu beharko dira.

LEHEN HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOKO IKASLEENTZAKO JARRAIBIDEAK (1. ETA 2. MAILAK)

ORIENTABIDE OROKORRAK

- Lehen Hezkuntzaren 2. mailako amaiera arte, hau da, 7 urte arte, ikasleek oraindik ez dute irakurketaren ikasketa-prozesua bukatu. Beraz, ez dugu dislexiaz hitz egingo. Horrela, lehen zikloan, esku-hartzeko jarraibideak prebentziozkoak dira oraindik.
- Gomendio hauek gelako haur guztientzat baliagarriak dira.
- Etapa honetan, kontuan hartu behar da zailtasunak dituzten haur askok irakurketaren ikaskuntza jarraitu ahal izango dutela metodo egokiak erabiltzen badira, lan sistematikoa egiten bada eta beren ikasteko erritmoa errespetatzen bada.
- Lehenengo esku-hartze maila eta, batzuetan, bigarrena, gomendatzen dira:
 - Esku-hartzeko lehenengo mailan, taldearen programak aberastu behar dira ikasle guztiei mesede egiteko eta, batez ere, zailtasunak dituztenei. Kasu horretan, behatu beharko da kodea bereganatzeko unean zein prozesutan dituen zailtasunak, berau edo berauek indartzeko (kontzientzia fonologikoa, soinuaren eta grafiaren arteko elkarrekotasuna, irakurtzeko jarria).
 - Esku-hartzeko bigarren mailan, lehenengo mailari etekina ateratzeaz gain, ikasleak laguntza gehigarria izan behar du, dela talde txikian, dela banaka; esku-hartzea beti oinarrituko da taldeari zuzendutako programetan, baina jarduera egokiek eta ikaslearen erritmoari egokituta egingo da, bere aurrerapena ziurtatu dadin.

ESKU-HARTZE ESPARRUA	JARDUNAK
PERTSONALA	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleak ulertzen badu hizkuntza idatzian zailtasunak dituela, frustrazioa, estresa, presioa eta nekea izan ditzake, eta egoera horrek ikaslea jarrera ez oso egokietara eraman dezake. • Bere autoestimua hobetu eta bere lorpenak publikoki errekonozitzea. • Beharrezko jarduerak abian jartzea ikasleak bere zailtasunak porrot bezala bizi ez ditzan: bere erritmoa errespetatzea, eginkizunak pausoz pauso aurkeztea, bere aurrerapenak indartzea, taldearen aurrean ozen ez irakurraraztea...
FAMILIA ARTEKOA	<ul style="list-style-type: none"> • Familiaren inplikazioa bilatu behar da. Zailtasunen berri eman baina ez larritzea. • Beren seme-alabaren aurrerapena errazteko, eskolan jarraituko diren estrategia eta jarraibideak ezagutaraztea. • Jarraibideak eta orientazioak eman seme-alabaREKIN irakurtzeko eta irakurketarekiko motibatzeke (ikus "Lehen zikloko haurrak dituzten familientzako jarraibideak...", 7. or.). <ul style="list-style-type: none"> - Irakurzaletasuna bizitzari aurre egiteko modu bat da, eta ikasi egiten da. Errazagoa da seme-alabek irakurketarekiko eta liburuekiko interesa azaltzea gurasoek aktiboki jarduten badute prozesuan. - Kontuan hartu behar da irakurtzeak plazera beharrezkoa duela; gurasoen arreta edukitzea jarduera hori egitean eta elkarrekin ondo pasatzea bermerik hoberena da jarduera horrekiko haurraren interesa ziurtatzeko. • Garrantzitsua da, ahal den neurrian, ikasketa-prozesua elkarrekin partekatzea eta lantzea, eskola eta familia mailan.
SOZIALA	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasgelan eta ikasle guztiekin aniztasunarekiko errespetua landu behar da: denok ikasten dugu eta hobetzen dugu, BAKOITZAK BERE ERRITMOAN!
ESKOLAKOA	<ul style="list-style-type: none"> • Ikaslearekin aritzen den irakasle-talde osoaren lan adostua eta koordinatua badago. Tutorea da arduraduna.

ESTRATEGIA METODOLOGIKOAK	ZER EGIN
<p>Irakaskuntza/ikaskuntza- prozesuari dagokionez:</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Multisentsoriala • Zentzumen guztiak erabiliz, irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren integrazio aktiboa eta interaktiboa erraztea. - Metagarria • Egiaztatzea ikasleak ulertu duela eta oinarriko ikaskuntzak integratu dituela. - Sekuentsiala eta mailakatua • Ikaskuntza pauso txikietan aletzea, ikasleak lortu eta finkatu behar dituenak, hurrengoa hasi arte. - Ikaskuntzari buruz • Behin eta berriro errepikatzea, zerbait ikasi bitartean zein hainbat ikaskuntzaren artean, lorpen berriak finkatu direla eta ezagutza berriekin ohitu direla ziurtatzeko... Horrela, nahi duenean erabil ditzakeen baliabide bihurtuko dira, eta ez dira izango hurrengo ikaskuntzak nahasteko eta distortsionatzeko elementuak.
ESTRATEGIA METODOLOGIKOAK	ZER EGIN
<p>Kontuan hartzeko beste aspektu batzuk:</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Indartzea • Praktikaren bidez, trebetasun guztiak indartzea, ikaskuntzaren osagai guztiekiko sarrera automatizatzea. - Trebetasunak irakastea • Irakaskuntzaren erdiguneak izan behar du trebetasun erabilgarrien eta transferigarrien garapena, eta ez hainbeste informazio gehiegi ematea; ondoren ez-erabilgarri bihurtuko dena eta ikasleak gogoratu ezin dezakeena. - Metakognizioa • Ikaslea bultzatu pentsatzera zein estrategia eta baliabide diren hoberenak beretzat eta hainbat egoeratan erabiltzeko. <ul style="list-style-type: none"> • Gauza da ikasleak bere zailtasunen kontzientzia hartzea eta konpentsazio- eta autoerregulazio-estrategiak aplikatzeko aukera izan dezala.
<p>Hizkuntza idatziaren ikaskuntzari buruz:</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Kontzientzia fonologikoaren lana: <ul style="list-style-type: none"> • Diskriminazioaren eta entzumen-memoriaren trebakuntza, mintzamenaren soinuak hauteman eta manipulatu arte. • Ikasleei erakustea hitzen soinuak (fonemak) manipulatzeko irakurketaren analisiaren eta sintesiaren trebetasunak hobetzeko. • Adin honetako haur guztientzat, gomendagarria da - Soinuaren eta grafiaren arteko elkarrekotasuna erakustea: <ul style="list-style-type: none"> • Ikasleei irakastea soinuak eta grafiak erlazionatzen, hitz polisilaboak modu mailakatuan deskodifikatzen (silaba zuzenekin hasi, silaba inbertsoekin jarraitu, ondoren silaba trabatuekin, etab.) eta arauak orokortzen hitz berriak sortzeko. • Letreiatu: ikasleak animatu silabak, hitzak eta esaldiak idatzera segmentazio-estrategiak hobetzeko eta hitzak sortzeko arauak lortzeko estrategiak ere bai. - Jarioa irakastea: <ul style="list-style-type: none"> • Ikasleei hitzak eta esaldiak irakurtzen laguntzea abiadura irabazteko, eta ziurtatzea ulermena ez dela oztokatzen hitzak deskodifikatzen jartzen duen arretagatik. – KONTUZ!! Jarioa eredu egokiarekin lortzen da, eta ez haurrari ozen irakurrarazten inongo laguntzarik gabe. Elkarrekin egindako irakurketak bultzatzea aukera ematen dio irakasleari eredu onak eskaintzeko. - Hiztegia irakastea: <ul style="list-style-type: none"> • Ahozko hizkuntzaren kompetentziak estimulatzeko jarraitu behar da nahitaezko oinarria baita irakurtzean dena ulertzeko. • Ziurtatu ikasleak irakurriko dituen hitzen esanahia ezagutzen duela. • Hitz berrien esanahia testuinguruarengatik deduzitzen irakastea eta ikastea. • Ikasleari oso ezagunak egiten zaizkion hitzak dituzten testuak erabiltzea.
	<ul style="list-style-type: none"> - Ulertzen irakastea: <ul style="list-style-type: none"> • "Irakurtzea ulertzea da". Ikasleei irakastea beren ulermena egiaztatzen irakurri bitartean, eta ohitzera testua errebisatzen eta berrirakurtzen ulermen-galderak erantzun baino lehen.

DOIKETAK ETA EGOKITZAPENAK	ZER ERRAZTU BEHAR DEN
Eskola-inguruneari dagokionez	<ul style="list-style-type: none"> • Gela barruan ikaslea non kokatzen den kontuan hartu behar da, eta saiatu ikaslea irakaslearen ondoan esertzen. • Ahal bada, distraitzeko elementuak ekidin behar dira. • Gelan, horma-irudi interaktiboak kokatu ikusizko euskarri izan daitezzen. • Gelan ikus-egutegia zintzilikatu denboraren antolamendua eta planifikazioa errazteko. • Nabarmen geratzeko egoerak ekidin ikasleari: azkar kalkulatzeko, arbelean idaztea, akatsak kolore deigarritzuzuzentzea, etab. Saiatu ez dezala taldearen aurrean ozen irakurri modu inprobisatuan. • Jarraibide eta enuntziatu idatziak ikasleari irakurri.
Aginduak nola eman eta lana nola antolatu	<ul style="list-style-type: none"> • Pauso asko dituzten instrukzioak ekidin. • Saiatu aldi berean agindu gehiegi ez ematen. • Lana aldi motz eta bizietan zatikatu nekea ekiditeko.